

04

EUSKAL NORTASUNA ETA KULTURA

>>>

NORTASUNA, KULTURA ETA HIZKUNTZA XXI. MENDEKO EUSKAL HERRIAN

Iñaki Martínez de Luna

EHU - Eusko Ikaskuntza

Helbide elektronikoa: mtz-de-luna@ej-gv.es

Larraitx Mendizabal

Prospekzio Soziologikoen Kabineteko teknikaria

Helbide elektronikoa: larraitx-mendizabal@ej-gv.es

Nortasun arazoa inoiz baino aktualitatekoagoa da. Modu batean edo bestean agertzen da gizarte garaikide gehienetan, izan dadin Iparraldeko gizarte aitzinatu edo Hegoaldeko gizarte azpigaratueta. Egoeren aniztasunetik eta honek har ditzakeen adierazpide desberdinetatik haratago joanez, iduritzen zait nortasunaren jalgitze honek problematika orokor batekin zerikusia duela. (Coulon, 2006: 17)

Gogoeta honi hasiera eman nahi izan diogu Christian Coulonen hitz batzuekin, testu hori ezin egokiagoa baita, gure ustez, *Nortasuna, kultura eta hizkuntza* auzia *XXI. mendeko Euskal Herrian* kokatzeko. Izan ere “inoiz baino aktualitatekoagoa” den nortasun edo identitate auzi hori, *problematika orokor batekin zerikusia* izateaz gainera, Euskal Herrian nabarmen areagotzen da, “*Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*” (Baxok et al., 2006) ikerlanean elkarriketatuak izan diren herritarrek argi utzi duten bezala. Lan horretan jasotako informazioari eta horren inguruan egileek —gu geu ere tartean gaudela— egindako gogoetei lotuko gatzazkio lerro hauetan gehienbat; tarte batzuetan, hitzez hitz.

ZER DA EUSKAL HERRIA? NOR DA EUSKAL HERRITAR?

Euskal Herriko gizartean egun dauden kultura eta nortasun adierak oso ezberdinak dira, jendearen iritziz. Eta, jende guztiak dakien hori bera

ikerlan batek zientifikoki berretsia izateak sendotasun handiagoa eta balio erantsia ematen dio kalean antzemandako horri. Areago, kasu honetan berretsi da baita ere izena eta izana elkarri loturik doazela, Euskal Herriaren definiziotik beretik hasten dira-eta ezberdintasunak: %30ek diote “Euskal Herria/País Vasco/Pays Basque” zazpi lurralde historikoak direla eta beste horrenbeste dira (%30) izen horren azpian Euskadiko Autonomia Erkidegoko (EAE) hiru lurraldeak baino aipatzen ez dituztenak. Alde ederra dago, hortaz, euskal herritarrak nortzuk garen eta non kokatuta gauden erabakitzean.

Euskal nortasunaren euskarri geo-espaziala zedarritzea hain nahasgarria izanik, erraz susma daiteke lurralde horietan bizi den jende anitzaren iritziak ere zein ezberdinak izango diren. Adibidez, euskal nortasunaren adierak iraganak ezarriak ala gaur egungo herritarren hautuetan oinarrituak dira? Aniztasunaren ildoan sakonduz, euskal kultura eta nortasunaz dauden adierak ere oso ikuspuntu kontzeptual ezberdinetan oinarritzen dira, besteak beste, lurraldearen arabera. EAEn, adibidez, euskal herritarra izateko baldintzez galdetuta, ikuspuntu konstruktibistak dira nagusi, norbere borondatea eta eskuragarriak diren baldintzak jotzen dira garrantzitsuen: “euskalduna izan nahi izatea” eta “bertan bizi eta lan egitea”, %46na aipamenekin; Iparraldean, aldiz, iritzi primordialistak edo esentzialistak dira nabarmentzen direnak, berezko edo jatorrizko ezaugarriak: “Euskal Herrian sortua izatea” (%53) eta “euskaraz jakitea” (%40) dira euskal herritarra izateko gailentzen diren baldintzak. Nafarroako erantzunak, bestalde, mutur horien artean erdibidean gelditzen dira: “Euskal Herrian sortua izatea” (%42) eta “euskalduna izan nahi izatea” (%41).

EZAUGARRI ETA ERREFERENTE KULTURAL ERABAKIGARRIEN URRITASUNA ETA EUSKARAREN ZENTRALITASUNA

Euskal Herriaren ideia zabalena (zazpi lurraldeak barne hartzen dituen) partekatzen dutenen artean ere, badirudi elementu zehatzak falta direla irudikapen horren mugak argi finkatzeko; gabezia hori orokorra bada ere, zenbait kolektibotan areagotzen da:

euskaldunek eta euskaltzaleek, oro har, identifikazio maila handiagoa agertzen dute Euskal Herriaren ideiarekiko, eta euskaldun ez direnek eta ez euskaltzaleek, berriz, distantzia batetik ikusten dute eta zailtasun gehiago dituzte kontzeptu horri eduki zehatzak atxikitzeko. (...) Badirudi Euskal Herria ideia bat dela, egunerokoan mamitutako errealitate bat baino gehiago. (Baxok et al., 2006: 46)

Dena den, euskaltasunaren mendetako usadioekin batera, aspaldian gurean dauden edo gurera iritsi berriak zaizkigun erdaltasunaren hainbat elementu kultural eta identitario ere Euskal Herriko kultura eta nortasunean zeharo erroturik ditugu, gaur egun. Pluraltasun hori, alabaina, ez da soilik Euskal Herriko berezko ezaugarria, gizarte garaikide garatu

EAEn euskal herritarra izateko baldintzez galdetuta, ikuspuntu konstruktibistak dira nagusi, norbere borondatea eta eskuragarriak diren baldintzak jotzen dira garrantzitsuen: “euskalduna izan nahi izatea” eta “bertan bizi eta lan egitea”, %46na aipamenekin; Iparraldean, aldiz, iritzi primordialistak edo esentzialistak dira nabarmentzen direnak, berezko edo jatorrizko ezaugarriak: “Euskal Herrian sortua izatea” (%53) eta “euskaraz jakitea” (%40) dira euskal herritarra izateko gailentzen diren baldintzak.

Euskaldunek eta euskaltzaleek, oro har, identifikazio maila handiagoa agertzen dute Euskal Herriaren ideiarekiko, eta euskaldun ez direnek eta ez euskaltzaleek, berriz, distantzia batetik ikusten dute eta zailtasun gehiago dituzte kontzeptu horri eduki zehatzak atxikitzeko. (...) Badirudi Euskal Herria ideia bat dela, egunerokoan mamitutako errealitate bat baino gehiago.

guztietan agertzen baita. Kultura eta nortasun kolektiboaren ikuspuntu-tik begiratuta, beste gizarte edo erkidego garaikide batzuetatik Euskal Herria bereizten duena eraketa juridiko, administratibo edo politiko komunik ez izatean datza; alegia euskal lurralde, azpi-gizatalde eta azpi-kultur guztiak batzen dituen egitura formal edo ofizial partekaturik ez izatean, ezta horiek ekarriko luketen ezinbesteko eragin kultural eta iden-titariorik ere.

Dena dela ere, esan dezakegu lurralde guztiek komun dutena eus-kaltasuna dela, euskaltasunaren esparrutzat denek jotzen dituzten hain-bat osagai Euskal Herriko leku guztietan —neurri ezberdinetan bada ere— agertzen dira eta. Hori ez ezik, Euskal Herriko lurraldeen arteko eguneroko harreman-jarioa eta hurbiltasun sinbolikoa ere beste lurralde-ekikoei gailentzen zaizkie herritarren gehiengoarengan, hurbiltasun sen-timendu eta lotura estuagoak ematen dira Euskal Herriko beste lurralde-ekiko, inguruko gainerako lurraldeekiko baino. Euskaltasun horren arda-tzetako bat —argiena, hain zuzen— euskara da:

Euskal Herria zer den azaltzeko orduan euskara faktore erabakigarria da, batez ere Nafarroan eta Iparraldean; EAEn eguneroko bizitzako beste elementu batzuk ere aipatzen dira (koadrila, poteoa bezalako ohiturak, auzolana...). (Baxok et al., 2006: 46)

Hala ere, argi dago Euskal Herria eta euskal herritartasuna kontzep-tuen oinarrian euskara jartzean gertatzen den arazoa: jende multzo batek bere burua kontzeptu horretan barneratuta ikusten du edo ikusi nahi du, baina ez daki euskaraz eta beste multzo batentzat, euskalduna izan arren, hizkuntza honek bere eguneroko bizitzan esparru urri batzuetan baka-rrik du lekua. Orduan, nola definitu Euskal Herria eta norbere nortasuna hizkuntza horren arabera? Bere burua euskal herritar ikusten ez duenak (Iparraldeko eta Nafarroako biztanleen zati garrantzitsu batek) ez du ara-zorik euskal herritartasunaren oinarrian euskara jartzeko, nortasun horretatik kanpo eroso baitago, ez dio barne-arazorik sortzen. EAEko biz-tanleen zati handi batentzat, aldiz, kontua ez da erraza: Euskal Herria ideia bezala konpartitzen dute, baina kosta egiten zaie euskara horren oinarrian jartzea, gizartearen zati handi bat kanpoan utziko luketelako. Horregatik, beste lotura elementu batzuk azpimarratzera jotzen dute, hala nola, koadrilaren garrantzia, poteoaren ohitura e.a. Honela, maiz ez dago euskararen beharrik, errazagoa da, bertan bizitzeak berak dakarren zenbait erreferente, erakunde, funtzionamendu... partekatzea.

EUSKARA ETORKIZUNEAN

Aipagarria da Euskarak Euskal Herriko bazter gehienetan duen pisu edo zentraltasun sinbolikoa, ñabardurak ñabardura:

Euskaltasunaren elementuen artean euskara da ezinbesteko osagai edo erreferentea. Izan ere goraiatu, gaitzetsi —gutxi batzuen kasuan— nahiz indiferentzia adierazi arren, hizkuntza hori diskurtso mota guztietan egon da presente. (Baxok et al., 2006: 156)

Euskara herritarren ahotan egon da ikerketa osoan zehar, modu ezberdinetan bada ere: barneratuago edo berezkoago bezala hizkuntza hori hedatuago dagoen eskualdeetan, hots, soziolinguistikoki euskaldunagoak diren eskualdeetan; aldiz, modu sinbolikoagoan agertzen da eguneroko bizitzan euskara bazterrekoa den ingurune soziolinguistikoetan.

Ulergarria da euskal kultura eta nortasuna kolokan ikusten dituztenek finkatuen ageri dirn baloreetara jotzea, horrelakoen inguruan, gainera, errazagoa izaten baita nolabaiteko adostasuna lortzea. (Baxok et al., 2006: 54)

Aurrera begira, aipatzekoa da zenbateraino den garrantzizkoa, Iparraldeko eta Nafarroako euskaldunen eta euskaltzaileen iritziz, instituzioek euskal kultura babes dezaten. Bi herrialdeetan adierazten dutenez, euskal kulturaren lan handia egiten den arren eta gero eta gazte gehiago euskara ikasten duten arren, ahalegin horiek alferrikakoak izan litezke baldin eta instituzioen jarrera aldatzen ez bada, aldaketarik ezean euskara eta euskal kultura eta nortasuna kinka larrian egongo bailirateke etorkizun globalizatuan. Ezinbestekotzat jotzen dute, horrenbestez, instituzioek bestela jokatzeara.

Taldeetako adierazpenak aztertzean berehala azaleratzen da etorkizunera begirako beste kezka bat, zailtasunak ikusten baitira nortasun desberdinen elkarbizitza lortzeko, areago arazo berri baten aurrean: zer egin orain arte ez bezalako fenomenoak —atzerriko immigrazioa kasudatozen honetan.

Etorkizunera begirako jarrerak aztertzeko interesgarria da ondoko datua: seme-alabek euskaraz dakitenen edo jakitea nahiko luketenen kopurua da Euskal Herrian hedatuena (%87), baita hiru lurraldeetako bakoitzean ere: Iparraldean (%63), Nafarroan (%67) eta EAEn (%96) (Baxok et al., 2006: 69). Areago, ingurune soziolinguistikorik erdaldunetako den Nafarroako hegoaldean ere jarrera hori bera da ugariena (%42) (Baxok et al., 2006: CD-Rom).

Euskal Herria zer den azaltzeko orduan euskara faktore erabakigarria da, batez ere Nafarroan eta Iparraldean; EAEn eguneroko bizitzako beste elementu batzuk ere aipatzen dira (koadrila, poteoa bezalako ohiturak, auzolana...).

Seme-alabarik baldin baduzu, edo edukiko bazenitu, nahiko zenuke haiek euskaraz jakitea?

	GUZTIRA	LURRALDEA			ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Jadanik badakite	36	43	19	18	7	35	57	43	30	36	47
Bai, nahiko nuke jakin dezaten	51	53	48	45	80	55	30	40	48	59	52
Berdin zait	8	3	22	20	8	6	10	10	14	4	1
Ez, ez nuke nahi jakin dezaten	3	1	7	12	3	3	2	3	5	0	0
Ed/Ee	2	1	4	6	1	1	1	4	3	1	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Baxok et al., 2006: 69 or.

Beraz, euskal nortasunaren ezinbesteko baldintza jo ala ez, jende gehienak euskararen aldeko hautua egiten du etorkizunera begira.

Hizkuntza gatazka erlatiboa

Hizkuntza bi edo gehiago ukipen egoeran dituzten komunitateetan, hiztun komunitate horiek sarri oldartzen dira elkarrengana, euren interes linguistiko kontrajarriak eta hizkuntza eskubideen defentsa direla medio. Hori, Euskal Herrian neurri batean bakarrik gertatzen dela dirudi; aitzitik, euskaldunak izan zein ez, gehiengo zabal batek ez du inoiz diskriminazio aztarnarik antzeman, datuek erakusten duten bezala.

Baztertua sentitu zara euskaraz hitz egin nahi izateagatik?*

	GUZTIRA *	LURRALDEA			ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Bai	25	25	31	19	23	26	25	29
Ez, inoiz ez	72	71	66	78	75	71	69	69
Ed/Ee	3	3	3	2	3	3	5	2
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100

* Euskaraz aski ongi edo oso ongi hitz egiten dutela diotenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %29).

Iturria: Baxok et al., 2006: 67 or.

Baztertua sentitu zara euskaraz ez jakiteagatik?*

	GUZTIRA *	LURRALDEA			ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA	
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat
Bai	20	21	11	34	22	26	21	9	19	24
Ez, inoiz ez	74	76	77	58	69	69	74	87	76	69
Ed/Ee	6	3	12	8	9	5	5	4	5	8
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Euskaraz pixka bat, hitz batzuk soilik edo batere ez dakitela esan dutenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %71).

Iturria: Baxok et al., 2006: 68 or.

Hala ere, baliteke elkarbizitza baketsu hori egoera idiliko baten isla baino, egoera diglosikoa barneratzearen ondorio gordina izatea. Lerro hauek idazteko eskuartearen darabilkigun ikerlanak horretaz ezertxo ere jaso ez duen arren, hipotesi bat botatzera ausartuko gara: muturreraino eramanda, bake hori *kanposantuarena* ere izan liteke, hau da, burua altxa ezinik dabilen hizkuntza komunitate menderatu baten kasuarena. Horrela balitz, euskara erdararekin ordezkaturik izatea (ia) erabat barneratuta egonda euskaldunen komunitatean, diskriminazio sentimendurik eza hizkuntza baztertuaren aldeko aldarrikapenik ez egitetik letorke. Bestalde, komunitate ez-euskalduneko kideak gizartearen nagusia den hizkuntza bateko hiztunak izanik (gaztelania edo frantsesa, kasu kasu) ez lukete diskriminaziorik jasateko paradarik izango.


Hala ere, hizkuntza kontuengatik baztertuak sentitu diren taldeak ere ez dira bazterrean uzteko modukoak: euskaldunen %25a eta ez-euskaldunen %20a. Esan dezakegu euskaldunen laurden batek ez duela onartzen bere hizkuntza bigarren mailakotzat hartu eta esparru guztietan ezin erabiltzea. Nolabait esateko, talde hori litzateke euskararen menpekotasun egoeraren kontzientzia izan eta horren aurrean neurri batean behintzat bere eskubideak aldarrikatzen dituen, bazterketa pairatu izanaren kontzientzia edukitzeko adina.

Ez-euskaldunei dagokienean berriz, ikerketako datuei erreparatuta, badirudi bi bizipen mota oso desberdin daudela hizkuntza dela eta baztertuak sentitu direnengan: Batzuek (batez ere Iparraldean eta Nafarroan) euskararekiko jarrera positiboa agertzen dute, euskal herritar sentimendua ere bai, eta dirudienek euskaraz ez jakitea beren muga bat bezala bizi dute, batez ere harreman pertsonaletan oztupo bilakatzen zaien muga pertsonala. Beste batzuek aldiz (gehienbat EAE), ez dute euskararekiko jarrera positiborik eta gehienbat espainiar sentitzen dira eta euskara inposatu egiten delako diskurtsoa barneratu dutela dirudi, honela euskaraz ez jakiteagatik bidezkoa ez den bazterketa jasaten dutela sentitzen dutelarik.

EUSKARAREN GIZARTE IRUDIKAPENA


Euskara, erreferentzialtasun handikoa bai baina gehiengoarentzat gatazka iturri ez dela esan dugu arestian. Zein da, ordea, norberaren bizitzan duen lekua? Zein da euskal herritarrek euren egunerokoan ematen dioten garrantzia? Erantzun bila, euskaraz ez dakitenek euskara ikasteko/ikasi nahi izateko edo, aldiz, ikasi nahi ez izateko dituzten arrazoiei erreparatuko diegu ondoko lerroetan.

Etorkizunera begirako jarrerak aztertzeak interesgarria da ondoko datua: seme-alabek euskaraz dakitenen edo jakitea nahiko luketenen kopurua da Euskal Herrian hedatuena (%87), baita hiru lurraldeetako bakoitzean ere: Iparraldean (%63), Nafarroan (%67) eta EAE (%96).



* Euskara ikasten ari direla, lehenago arituak direla edo baldintza egokiak izanez gero ikasi nahiko luketela adierazi dutenei bakarrik galdetu zaie (euskaraz ongi ez dakitenen %51 edo biztanleria osoaren %36). Batura 100 baino handiagoa da hiru arrazoi aipatzeko aukera zegoelako.

Ikasteko edo ikasi nahi izateko arrazoiaren artetik identitate kolektiboak edo herri nortasunekoak nabarmentzen dira (*Euskal Herriko hizkuntza izatea, euskal herritarra izatea, nire erroak aurkitzeko*), iritzi horien guztien pisua %70era iritsiz; hau da, motibazio sinbolikoetan zimendatutako arrazoiak. Euskara ikasteko beste motibazio mota batzuk ere agertzen dira, baina modu askoz apalagoan, hala nola, motibazio komunikatibo-integratzaileak (%44) (*euskaldunekin komunikatu ahal izateko*, %34; *herri honetan integratzeko*, %10), lan-munduari lotutako pragmatikoak (%23) (*lana aurkitzeko/lanerako behar dut*, %17; *ikasketengatik*, %6) zein familiarrak (*seme-alabak ikasten ari direlako*, %17).



* Euskara ikasten ez direla aritu eta horretarako asmorik ere ez dutela adierazi dutenei bakarrik galdetu zaie (euskaraz ongi ez dakitenen %46 edo biztanleria osoaren %33). Batura 100 baino handiagoa da hiru arrazoi aipatzeko aukera zegoelako.

Euskara ikasi nahi ez izateko dauden arrazoiaren artean ere behar sozialik eza nabarmentzen da ia erabat. Izan ere, aipatzen diren hamaika arrazoietatik lauk (%76) behar edo premia sozialik eza islatzen dute, modu argian (ez dut behar, denek dakite erdaraz, %31; nahiago dut denbora beste zerbaitetan erabili, %28; ez dut behar lanerako/lana aurkitzeko, %11; ez dut interes, arrazoirik ikasteko, %6). Beste motatako arrazoiak ere aipatuak izan arren, oso urruti gelditzen dira aurrekoetatik. (Baxok et al., 2006: 63-66).

Laburbilduz, batetik, euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko dauden arrazoiaren artean pragmatikoak bigarren maila batean baino ez dira agertzen; bestetik, euskara ikasi nahi ez izateko argudio aipatuak ildo bere-tik doaz: euskararen praktikotasun ahulari daude lotuta. Hortaz, pentsatze-koa da euskararen aldeko ahalegin gehien-gehienek motibazio sinbo-likoak dutela oinarri.

Egoera horren aurrean, hemen, geure buruari egin behar diogun gal-dera hauxe da: euskararen aldeko motibazio pragmatikoen ahulezia iku-sita, ea motibazio sinbolikoetan suspertutako ahaleginak nahikoak ote diren euskara dagoen kinka larritik ateratzeko.

**Baliteke elkarbizitza
baketsu hori egoera
idiliko baten isla baino,
egoera diglosikoa
barneratzearen ondorio
gordina izatea. Lerro
hauek idazteko
eskuartean darabilkigun
ikerlanak horretaz ezertxo
ere jaso ez duen arren,
hipotesi bat botatzera
ausartuko gara:
muturreraino eramanda,
bake hori
kanposantuarena ere izan
liteke, hau da, burua altxa
ezinik dabilen hizkuntza
komunitate menderatu
baten kasuarena.**

HIZKUNTZAREN PARADOXA

Lehenago esan dugu euskal kulturaren inguruan herritarrek egiten dituzten gogoetetan euskarak leku berezia duela. Izan ere, paradoxa bat topatzen dugu euskararen inguruan: jende gehienak euskal kulturaren eta nortasunaren oinarrian kokatzen du:

... zenbaitek zalantzan jartzearaino euskararik gabeko euskal nortasunik edo kulturarik izango ote litzatekeen, baina aldi berean euskaraz ez dakiten askok ere beren euskal nortasuna eta euskal kulturaren parte izatea onar dadin eskatzen dute, euskararen ezagutza euskal nortasunaren eta kulturaren ezinbesteko baldintza denik ukatuz, eta nortasun hori eraikitzeke beste osagai batzuei balio handiagoa emanez. (Baxok et al., 2006: 140-141)

Korapiloa askatu nahirik, ikerlanean bertan (Baxok et al., 2006: 140-143) esandakoari lotuko gataizkio, ia hitzez hitz.

Euskarari balio sinboliko handia ematen zaio euskal kulturaren definizioan, baina askoz txikiagoa da maila pragmatikoan lortzen duena. Aldi berean, eguneroko errealtatean euskara beren hizkuntzatzat ez duten pertsonak edo euskara erabiltzen ez duten kultur ekintzak euskaltasunetik kanpo uzteak arazoak sortzen ditu. Bestalde, euskal herritar izan ahal izateko bi baldintza garrantzitsuenek galdetuta, euskara ez da lehentasunen artean aipatua izan (ez erdaldunen, ezta euskaldunen artean ere). Izan ere, nagusitzen diren bi eskakizunak honako hauek dira: *nahi izatea eta bertan bizi eta lan egitea*, Iparraldean salbu, non *euskaraz jakitea* bigarren lekuan agertzen den.

Hala eta guztiz ere, informazio kualitatiboak argi utzi du euskararen garrantzia, mota guztietako taldeek hizkuntza hori hizpide izan baitute, aldeko jarrera eta iritziak azaltzeko izan, nahiz hizkuntza horrekiko axo-lagabekeria edo distantzia adierazteko izan. Halaber, garrantzi handia esleitu diote euskarari elkarrizketatuek euskal kulturarekin gehien lotzen dituzten elementu batzuen arteko hautua egiteko —inkestan— eskatu zaienean ere, arrapostuetan euskarari (dantza, pilota, herri kirola, ohiturak, gastronomia eta abarren aurretik) lehenbiziko postua eman diote eta. Era berean, interneten euskal kulturaz mintzatzen denean ere, gehien aipatzen den elementua euskara da.

Zer dela eta, orduan, euskal herritarra sentitu ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren lehen baldintzen artean euskaraz jakitearena ez agertzea? Arestian esan bezala, itxura batean kontraesan bat aurkitzen dugu euskarari euskal kulturaren barnean ematen zaion lekuari buruz galde-tzean: batetik ukatu egiten da euskara ezinbesteko baldintza denik euskal herritarra izateko edota gauza bat euskal kulturatzat hartzeko, eta bestetik, euskal kulturaren ezaugarri batzuen artean euskara garrantzizkoena dela kontsideratzen da. Bildutako informazio —ustez, kontraesankor— horren gaineko irakurketa koherenteagoa egin nahirik, hainbat hipotesi bota daiteke.

Lehendabiziko hipotesia, euskal kultura eta nortasunari buruzko jarrera malgua izatean datza: euskara euskal kultura eta nortasunaren osagai garrantzitsuenetakoa dela uste arren, baliteke euskal nortasunari esanahi irekia (konstruktibista eta instrumentala, ez esentzialista edo primordialista) eman nahi izatea. Alegia, euskal herritarra izateko baldintza, horrela sentitzea edota bertan bizi eta lan egitea aipatzean, euskal nortasunaren kontzeptu horri malgutasun kutsua ematen zaio, ezbairik gabe; horrela eginda, euskaraz ez dakiten bertako hiritarrei eta etorkinei euskal gizartearen partaide izateko ateak irekirik uzten zaizkie; aldiz, euskal herritara izateko euskararen eskakizuna lehenestea gizartearen zati handiak definizio horretatik kanpo uztea ekarriko luke.

Euskararen inguruko ustezko kontraesana ulertzeko bigarren hipotesia, akulturazioarena litzateke. Hemen jaio eta bizi diren pertsonak, euskaraz ez jakin arren, beren burua euskal herritar (soilik edota espainiar/frantziar sentimenduekin batera) ikusten dute, horretarako euskaraz jakitea derrigorrezko baldintzatzat ez hartuz. Euskal herritartasuna erdaraz bizi daitekeenaren uste horrekin batera, *bertako* hizkuntzetatik batek kulturaren eragiteko eta nortasuna eratze duen garrantziari—lekuan lekuko hizkuntza orok duten bezala— uko egitea letorke. Talde-kulturaren zati garrantzitsu bat galtzea; nolabaiteko akulturazioa, azken finean.

Hirugarren hipotesia euskarak duen estatus sozialetik abiatzen da; hau da, Euskal Herrian bizitzeko euskararen premia handirik ez izatean oinarritzen da (zonaldearen arabera baldintzek asko aldatzen duten arren). Baliteke euskal kultura eta nortasunean herritarrek euskarari ematen dioten leku sinbolikoa handiagoa izatea, eguneroko gizarte baldintzek (gaitasun maila, erabilerarako gizarte ingurune eta sareak...) hizkuntza horri egiten dioten lekua baino. Batzuek euskara nahi, nahiko lukete, baina ingurune sozialak ez du hizkuntza horretarantz bultzatzen. Adibide egokia dugu ikerlan honetan: euskara ikasten ari ez diren eta horretarako asmorik ere ez dutenak aitortzen dutenez, portaera horren arrazoia da komunikatzeko euskararen premiarik ez izatea, denek erdara dakitelako eta denbora beste zereginetan ematea nahiago dutelako. Hipotesi horren zioa, azken buruan, euskarak pairatzen duen egoera gutxitu eta bazterrekoa da.

Euskararen inguruko ustezko kontraesana ulertzeko balizko beste azalpen batzuk ezin dira ahaztu, hala nola euskaraz jakitearen premia sentitu arren, norbere buruaren gaitasun falta zuritzearena eta abar.

Kontraesanak kontraesan, hala ere, bost elkarrizketatutik lauk seme-alabek euskaraz jakiteari ongi deritzote: honezkero badakitela edo—balizko egoeraz galdetuta—jakitea nahiko luketela diote. Egoera paradoxikoa, ezbairik gabe.

Laburbilduz, batetik, euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko dauden arrazoien artean pragmatikoak bigarren maila batean baino ez dira agertzen; bestetik, euskara ikasi nahi ez izateko argudio aipatuena ildo beretik doaz: euskararen praktikotasun ahulari daude lotuta. Hortaz, pentsatzekoa da euskararen aldeko ahalegin gehien-gehienek motibazio sinbolikoak dutela oinarri.

***Euskarari balio sinboliko
handia ematen zaio
euskal kulturaren
definizioan, baina askoz
txikiagoa da maila
pragmatikoan lortzen
duena. Aldi berean,
eguneroko errealitatean
euskara beren
hizkuntzatzat ez duten
pertsonek edo euskara
erabiltzen ez duten kultur
ekintzak euskaltasunetik
kanpo uzteak arazoak
sortzen ditu.***

NORTASUNA ETA KULTURA BIDEGURUTZEAN

Beraz, aurrera begira euskal gizarteak aurrez aurre izango duen erronka garrantzitsuenetakoa bat izango da euskarak zer leku izan behar duen erabakitzea, euskarari nolako papera eman nahi zaion argitzea: herritarrek adierazitakoaren arabera hizkuntzak etorkizunean izango duen betekizunaz serioski hausnartzeko garaia da. Alde horretatik, sekulako garrantzia du hizkuntzaren inguruko akordio bat bultzatzeak eta gizarte osoak parte hartzeak hizkuntzari buruzko erabakietan. Hau ez da gauza berria, hala adierazi baita lehenago ere toki askotatik (ikus, adibidez, Zalbide *et al.*, 2006: 138) baina beharrezkoa da berriz ere aipatzea. Euskal gizarteak erabaki beharko du zenbaterainoko pisu eta garrantzia edukiko duen euskarak bere kultura eta nortasunean: euskara izango al da osagairik erabakigarriena euskal kulturaren eta nortasunean? Onartuko litzateke euskara bigarren mailako elementutzat daukan euskal kultura eta nortasun bat?

Hortaz, euskararen inguruko hausnarketa bultzatzea eta adostasuna bilatzea ezinbestekoak dira ikuspuntu ezberdinak dituztenen arteko elkarbizitza ahalbidetzeko: asmo idealetatik hizkuntza egoera gordinera, nahiz aldeko jarrera sutsuetatik indiferentziazkoetara, kokapen guztiek behar dute integratu diskurtso berri batean, hizkuntza osasuntsu biziko bada. (Baxok *et al.*, 2006: 156)

Beste ezer bainoago, euskarak adostasuna eta etorkizunerako aukeak behar ditu, eta hein handi batean hori funtsezkoa izango da XXI. mendeko euskal kultura eta nortasunarentzat.

Bide horretatik, euskal kultura eta nortasunak aurrera egingo badu malgutasunez jokatu beharra dago Euskal Herriaren barruko izaera eta ulerkera ezberdinekin; hau da, euskal kultura eta nortasunaren ideia malguagoa egin eta bere mugak zabaldu, horren adierak lekuan lekuko berezitasunak ere beregana ditzan. Onartu beharreko pluraltasun horretan kanpoko euskal herritarrek ere (euskal diasporak zein etorkinek) badute zer esanik, horiekin guztiekin gure kulturak eta nortasunak aberastuz.

Ororen buru, erronka horiei hobeki erantzun ahal izateko, hizkuntza eta kultura gutxiengodunak sustatzen dituzten taldeek, elkarteek eta instituzioek ez lukete bakarrik gogor egin behar iragan eta ohitura idealizatuen izenean. Antropologoen, soziologoen eta psikologoen berriki aztertutako gaurko nortasun problematikek gure mundu globalizatuan agerian uzten dituzten eraldaketa, mestizaje, adarkatze guztiak kontuan hartu eta azpimarratu behar litzazkete. Ikuspuntu horretatik, baliteke globalizazioa, eragiten dituen mugimendu, berrikuntza eta askatze guztiekin batera, nortasunak bestela pentsatzeko parada ere izatea gure mundu modernoan. (Coulon, 2006: 17)

Bestalde, hizpide dugun ikerketan azaldu diren gaien artean, eguneroko kulturarenak ere berebiziko indarra eta garrantzia izan du.

Tradizioa eta sorkuntza kontzeptuen aldean, elkarrizketatuen arteko askok eguneroko bizipenak eta elementuak aukeratu dituzte euskal kulturaz eta nortasunaz jarduteko orduan. Ikuspegi hori EAEen azaleratu da inon baino nabarmenago, kultura artearekin, musikarekin edo dantzekin lotu beharrean, bertan eman den definizioak zerikusi handiagoa izan baitu norbanakoak bere inguru hurbilean bizi, sortu eta irudikatzen duenarekin: gastronomia, nortasuna edo izaera, koadrila, agurrak eta beste asko. (Baxok et al., 2006: 156)

Eta hori da, arestian ikusten genuen bezala, euskarak duen ahulezia, leku askotan egunerokoan presentzia sendorik ez izatea. Hortaz, euskal kulturak osasuntsu bizirauteko behar dituen baldintzen artean, egunerokoan errotua izatearen baldintza kokatzen da, euskara harreman-sare horietan ongi sustraitzea. Alderantziz, euskal kultura soilik elitista eta jaso gisa ulertuz gero, euskara ere museo eta laborategi eremuetara baztertua izateko arriskua legoke.

Honezkero gogoeta honen bidea urratzen goazela, ezin dugu aipatu gabe utzi Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) eskutik euskal kulturari eta nortasunari zabaltzen zaizkien egoera berriak. Deigarria da euskalgintzak eta, oro har, euskararen komunitateak IKTn eremuko hainbat adarretan jarri duen arreta eta duen parte hartze handiak (foroak, weblogak...), batez ere euskarak beste eremu arruntagoetan duen presentzia txikia kontuan izanda, hedabideena edo aisialdiarena kasu. Euskal kulturak eta nortasunak egun bizi duten krisialdiari erantzun sendoa eman nahia ote, *hordagoa* nolabait botaz? Edo erronka berriei aurre egiteko euskararen komunitatea inoiz baino prestatuago dagoen seinale ote?

Bestalde, euskal kultura eta nortasun malgu, ireki, gaurkotu eta, azken finean, berria eraiki nahi dugun une honetan, Euskal Herrian bertan jaio eta bizi garenok ez gara nor, euskal herritar izaera beste inori ukatzeko. Are gehiago, irekitze kultural eta identitario orok baztertzailea baino, integratzailea behar du izan. Euskal diasporak, aldi berean *kampano/bertako eragilea* den aldetik, rol aparta izan lezake Euskal Herriko berrikuntza kultural eta identitarioan.

AMAIERAKO MEZUA

Eztabaida taldeetako partaideek diotenez, etorkizunera begira, euskal kultura berriro interpretatzeko eta haren espazioa eta garatzeko aukerak berriro definitzeko saioak egin behar dira, ahalik eta jende gehienari partaide sentitzeko aukera emango dieten parametro berriak erabiliz. Euskaldunen eta ez-euskaldunen gerturatzea sustatu behar da partekatutako espazio kulturalen bitartez. Espazio hauetan erabiliko den hizkuntzaren inguruko akordioak lortu beharko dira.

Egun, lurralde batzuetan euskararen gaineko interesa berpiztu den une honetan eta, beste lurralde batzuetan, euskarazko gaitasuna duten eta hizkuntza horretan alfabetatuak direnen kopuruak areagotu direne-

***Beraz, aurrera begira
euskal gizarteak aurrez
aurre izango duen erronka
garrantzitsuenetako bat
izango da euskarak zer
leku izan behar duen
erabakitzea, euskarari
nolako papera eman nahi
zaion argitzea.***

***Euskal kulturak
osasuntsu bizirauteko
behar dituen baldintzen
artean, egunerokoan
errotua izatearen
baldintza kokatzen da,
euskara harreman-sare
horietan ongi sustraitzea.
Alderantziz, euskal
kultura soilik elitista eta
jasoa gisa ulertuz gero,
euskara ere museo eta
laborategi eremuetara
baztertua izateko
arriskua legoke.***

an, pentsa daiteke garai hau egokia dela, beharbada, euskal kultura eta nortasunaren aldeko ahaleginetan euskara tresnarik egokienetako bat izateko; hizkuntza hori euskal kultura eta nortasunaren ardatz nagusi bilaka daitekeela. Baita ere, aurrerago jotzeko eta sakon aztertzeko zer dela-eta herritarren parte bat euskararen aurka agertzen den, edo — sarriago gertatzen dena— zergatik kokatzen den horretatik kanpo, euskara guztiz alde batera utzita. Euskal kulturaren eta nortasunaren berri-tzean eta horien berpizkundean hizkuntzak, euskarak, bete lezakeen rola- ren garrantzia behin eta berriz azpimarratzea ez da hutsala, errealita- te bati dagokion irakurketa objektiboaren ondorioa baizik.

Euskal gizarteak berezkoa duena galdu gabe irekitze prozesua buru- tuko badu, prozesu hori batez ere euskaltasunetik —euskara ardatz har- tuta— gidatu behar da, nahiz eta bestelako adierazpen kultural eta iden- titarioek ere euren lekua izan behar dutela gogo onez onartu. Azken buruan, tradizioaren zimenduen gainean eraiki behar da geroa, ez soilik kanpoko ezaugarrietatik edo zerotik hasita.■

BIBLIOGRAFIA

- Baxok, E. *et al.* (2006) *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia-San Sebastián. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.
- Coulon, C. (2006) Hitzaurrea: Nortasun arazoak gogoetatzea XXI. Men- dearen hasiera honetan: zenbait lan-hipotesi. In Baxok, E. *et al.*: *Eus- kal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia-San Sebas- tián. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos.
- Zalbide, M., Gardner, N., Erize, X. eta Azurmendi, M.J. (2006) The future of Basque in RLS perspective. In Azurmendi, M.J. eta Martínez de Luna, I. (Bilduma egileak): *The Case of Basque: Past, Present and Futu- re*. Andoain (Gipuzkoa). Soziolinguistika Klusterra (117-139).

OHARRA

1. Bistakoa da euskaraz jakitea eskuragarria dela, ez dela “berezkoa”, baina Iparraldean beste inon baino gehiago jo beharko genuke jatorrizko ezaugarritzat hartzea, lurralde hartan (EAEn edo Nafar- roan ez bezala) euskaldun ia guztiek etxean jaso baitute euskara.